

# MUSIKAREN MUGAK ZABALDUZ



## IKASTAROA

Eneko Larrañaga

## IKASTAROAREN OINARRIA

Ikastaro honen asmoa musikarekin dugun erlazio motibatzaile eta osasuntsu bat eratzea da, jolasean ikastea.

Musikaren mugetatik haratago joan eta talde dinamika sustatzea.

Gure hazkuntzaren garapena kontuan izatea garrantzitsua da:

Lehenengo pausoekin batera, haurra ibiltzen, dantzatzen, ahoskatzen eta gauzak ukitzen hasten da.

Horregatik perkusioa eta ahots jolasak musika egiteko modurik errazena dira. Garapen psikosozialerako gailu ederrak.

Musikaren atea dira.

Sokazko instrumentuak joko ditugu baita eta saio bereziren bat ere egongo da.



## PERKUSIOA

Zati errazak bateratuta talde perkusio ederra sortzen da.

“Zuk ahal duzu” mezua funtsezkoa da adin hauetan.

Talde dinamiketan, garapen psikosoziala garatzen da.

Taldearen garrantzia lantzen da: guztiok egindako komposizioa

zaitu eta mantendu behar dugu, denok gara garrantzitsuak.

Musikariarentzat motrizitatea eta erritmoa funtsezkoa da.

# IKASTAROKO ELEMENTUAK

## ELEMENTUAK HILERO ALDATZEN JOANGO GARA

### PERKUSIO AFRIKARRA

- Zati askotan banatzen da, bakoitzaren egitekoa erraza izanik.
- Instrumentu afrikarrak, kubatarrek eta bestelakoak erabiliko dira.

“Denok egiten duguna da garrantzitsua” .

### TXALAPARTA

- Nondik datorren, erabilpenak... ikasiko dituzte.
- Erritmo tradizionala eta modernoa joko ditugu.

“Elkarrizketa bat da, elkar entzutea funtsezkoa da” .

### AHOTS JOLASA

- Ahozko perkusioa.
- Instrumentu ezberdinen imitazioak.
- Zati ezberdinetan banatzen da kanta:  
Eta zati bakoitza taldetxo batek egiten du, elkar lagunduz.
- Sorkuntzarako bide interesgarria da.

“Ahotsa gure arimaren ispilua da, konfidantza lantzeko egokia” .

### GITARRA eta UKELELEA

- Sokazko instrumentuen jatorri, teknikak...
- Gauza errazak joko ditugu, jolasa eta simpletasuna nagusituz.

### KORA (Entzunezkoa eta noizbehinkakoa)

- Instrumentuen azalpena eta saio musikatua emango diet hurrei.
- Kora, 21 sokadun afrikar arpa da.
- Afrikako kulturaren murgilduko gara.